



Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko prozedura

EKOP 2026-2030

2025eko azaroa, 1. bertsioa



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



EDUKIEN AURKIBIDEA

| | |
|---|----------|
| EDUKIEN AURKIBIDEA | 2 |
| 1.-Sarrera | 3 |
| 2.-Xedea eta aplikazio-eremua. | 4 |
| 3.- Eraginkortasuna egiaztatzea | 4 |
| 3.1.- Helburuak eta adierazleak..... | 4 |
| 3.2.- Egiatapenerako prozedura | 5 |
| 3.3.- Egiatapenaren emaitzak | 5 |
| 4.- Ez-betetzeetan hartu beharreko neurriak..... | 6 |
| 5.- Erreferentziak..... | 7 |



1.-Sarrera

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [2017/625 \(EB\) Erregelamenduak](#), elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitariei buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoak, azpimarratzen du beharrezkoa dela kontrol ofizialen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzea gainbegiratze-, ebaluazio- eta auditoretza-mekanismoen bidez.

Erregelamendu horrek, 5.1.a) artikuluan, kontrol ofizialen eraginkortasuna eta egokitasuna ziurtatzeko prozedurak edo mekanismoak ezartzeko betebeharra ezartzen du. Bestalde, 12.3 artikulua ezartzen du beharrezkoa dela kontrolak aztertze prozedurak egitea, kontrol horiek eraginkorrak eta koherenteak direla bermatzeko, eta egiaztapen horretan aurkitu diren gabeziak gainditzeko beharrezko neurri zuzentzaileak hartzen direla bermatzeko.

Hortaz, Europako araudian ezarritako kontrol- eta auditoretza-mekanismoek berekin dakarte kontrol ofiziala ebaluatu beharra, kontrol ofizialen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzeko.

Gainera, lege-esparruaren osagarri gisa, Europako Batzordeak Kontrol Ofizialen Erregelamendua abian jartzen laguntzen duten komunikazioak argitaratu ditu. Alde batetik, [2021/C 78/01 Komunikazioak](#) zehazten du urte anitzeko planek egiaztapenari buruzko xedapenak izan behar dituztela, kontrol ofizialen kalitatea, inpartzialtasuna, koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko maila guztietan. Bestalde, [2021/C 71/01 Komunikazioak](#) kontrol horien eraginkortasuna ebaluatzea eta aztertzea sustatzen duten jarraibideak ematen ditu, eta horrek esan nahi du estatu kideek alderdi hori kontuan hartu behar dutela urteko txostenak egitean.

Era berean, Europako Batzordeak erreferentziako dokumentuak egin ditu, kontrol ofizialen eraginkortasuna egiaztatze sistemak garatzen laguntzeko. Hain zuzen, [Helburuen eta Adierazleen Garapena](#) dokumentuak esparru metodologikoa ezartzen du helburuak definitzeko eta adierazleak hautatzeko, zeinek ahalbidetzen baitute ofizialen aurrerapena eta eraginkortasuna ebaluatzea. Gainera, [Eraginkortasunaren Egiaztapena](#) dokumentuak datuen eraginkortasuna, bilketa eta azterketa egiaztatze sistemaren betekizunak zehazten ditu; era berean, urteko txostenetan sartzeko eta jarraipen-ekintzak abiarazteko betekizunak ere zehazten ditu.

Bestalde, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak **kontrol ofizialeko sistemaren eraginkortasuna egiaztatze gida** bat egin du, agintaritza eskudunei helburuen eta adierazleen sistema bat sortzen laguntzeko eta sistema horren irizpide komunak ezartzeko; sistema horrek estatu mailako kontrolen eraginkortasuna egiaztatze balioko luke. Dokumentu horretan, kontrol ofizialeko programa guztietarako adierazle komun batzuk deskribatzen dira, eta datu horiek eskatuko dira geroago urteko txostenak egiteko.

Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatze prozesua kontrolek aurreikusitako helburuak lortzeko duten gaitasuna egiaztatzean datza, eta kontrol-prozesu ofizialaren zati desberdinetan egin daiteke, une desberdinetan eta eskumen-maila desberdinetan, bai zentralean, bai autonomikoan eta lurralde-mailan.

2.-Xedea eta aplikazio-eremua.

Prozedura honen helburua da kontrol ofizialeko sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko sistematika bat ezartzea, irizpide komunak ezartzeko eta **EKOP 2026-2030** planaren kontrol ofizialeko programa guztietan aplikatzeko.

Kontrol ofizialeko sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko prozeduran, proposatutako helburuak lortzeko kontrolek duten gaitasuna ebaluatzen da, planaren eta kontrol ofizialeko programen emaitzak adierazleen bidez baloratuz; izan ere, adierazle horien bitartez, aurreikusitako helburuak betetzen direla egiaztatu daiteke.

Egiaztapena agintaritzea eskudunek egin behar dute kontrolak egitean, bai eta kontrol programa bakoitzeko koordinazio-agintaritzek ere, eta ez da beharrezkoa kontrolak egiten dituen egituratik kanpoko beste egitura independente bat

Prozedura hau **EKOP 2026-2030** barruko programei aplikatuko zaie, zehazki, **EKOP 2026-2030** Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Planaren 7.1 puntuan zerrendatutako kontrol ofizialeko programei.

3.- Eraginkortasuna egiaztatzea

Kontrol-sistema ofizialaren eraginkortasuna egiaztatzeko, Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Plana eta kontrol ofizialeko programak ebaluatu behar dira, eraginkorrak eta koherenteak direla egiaztatzeko. Egiaztapen horren oinarria izango da zehaztea ea kontrolak egokiak izan diren **EKOP 2026-2030** planean eta kontrol ofizialeko programetan ezarritako helburuak lortzeko.

Egiaztapen hori egiteko, helburuak ezarri behar dira, **EKOP 2026-2030** planarekin eta kontrol ofizialeko programa bakoitzarekin zer lortu nahi den zehazteko.

Era berean, adierazle batzuk definitu beharko dira, kontrol-sistemaren funtzionamendua eta betetze-maila ondo ezagutzeko, jarraipena egiteko eta helburuak lortzeko bidean aurrera egin dela erakusteko. Adierazleak ezartzea helburuei lotuta egongo da, zuzenean edo zeharka, kontrol ofizialeko sistemaren errendimendua neurtzeko aukera eman dezaten.

3.1.- Helburuak eta adierazleak

Helburuek definitu behar dute zer lortu nahi den, eta, horrela, lortu nahi denari begira, neurriak ezarriko dira. Helburuek espezifikokoak, neurgarriak, errealistak eta lorgarriak izan behar dute, eta, gainera, denboraldi jakin baterako izan behar dute. Hierarkikoki egituratuta daude, eta hainbat mailatan:

- **Helburu estrategikoak:** **EKOP 2026-2030** planerako estrategia orokorra definitzen dute.
- **Helburu orokorrak:** kontrol-programa ofizial bakoitzari lotuta daude eta kontrol-programa bakoitzak zer lortu nahi duen zehazten dute.
- **Helburu operatiboak:** kontrol ofizialeko programa bakoitzari lotuta daude, eta agintaritzea eskudun bakoitzak kontrol-programaren bidez zer lortu nahi duen zehazten dute.

EKOP 2026-2030 planaren helburu estrategikoak zenbateraino lortzen diren egiaztatzeko, eraginkortasuna planaren indarraldiaren amaieran egiaztatuko da, lehenengo urteko edo abiapuntuako egoera kontuan hartuta. Horretarako, bosturtekoa amaitzean, **EKOP 2026-2030** planaren helburu estrategikoak zenbateraino lortu diren hausnartu eta idatziz jasota geratuko da. Horrek balio izango du hurrengo planean hobekuntzak planteatzeko.

Bestalde, kontrol ofizialeko programak gauzatzeak programa bakoitzean helburu orokorrak eta operatiboak betetzen direla bermatzeko aukera ematen duen eta aurkitutako gabeziak gainditzeko neurri zuzentzaileak hartzen ari diren egiaztatzeako, urtero beteko dira estatuan ezarritako adierazleak, kontrol-programa ofizial bakoitzaren helburu operatiboen arabera.

Kontrol-jardueren eraginkortasuna neurtzeko adierazleak helburuak lortzeko bidean aurrerapenaren berri ematen dute. Garrantzitsuak, egokiak, ebaluatzeako errazak eta sendoak izan behar dute, eta kalkulua ahalik eta errazena izan behar da.

3.2.- Egiaztapenerako prozedura

Sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeako, adierazleak kalkulatzeko balioko diguten datuak bildu beharko dira, unean-unean eta ezarritako maiztasunarekin.

Horretarako, agintaritza eskudun bakoitzak beharrezko datuak lortzeko informazio-iturria zehaztu beharko du. Honako datu hauek dira:

- Kontrol-programak ezarritako gutxieneko kontrolen kopurua
- Programatutako kontrolen kopurua
- Eginiko kontrol programatuen kopurua
- Programatu gabeko kontrolen kopurua
- Eginiko kontrol guztien kopurua
- Ez-betetzeak dituzten kontrolen kopurua
- Zehapen-espeditente bat ireki duten kontrolen kopurua
- Kontrolatutako operadoreen kopurua
- Ez-betetzeak dituzten operadoreen kopurua

3.3.- Egiaztapenaren emaitzak

Eraginkortasunaren egiaztapenaren emaitzak urtero jasoko dira, estatu mailako koordinazio-unitate bakoitzak eskatzen duen formatuan, gehienetan taula-formatuan. Horretarako, MAPAk adierazle komun batzuk ezarri ditu kontrol-programa guztietarako, eta, ondoren, Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalaren emaitzen urteko txostenean jasoko dira ekitaldi bakoitzerako.

3.3.1.- Kontrolen exekuzioaren betetzeari buruzko adierazleak

Kontrol-programa bakoitzean aurreikusitako gutxieneko Kontrol-kopurua egin ote den kalkulatzeko, adierazle hauek ezartzen dira:

- **IG1 Programazioa betetzea:** Gauzatutako kontrol programatuen kopurua* 100/Programatutako kontrolen kopurua.
- **IG2 Gutxieneko kontrol-kopurua betetzea:** Egindako kontrol guztien kopurua (programatuak eta programatu gabekak)* 100/Kontrol-programan ezarritako kontrol kopurua.

IG1 eta **IS2**ren emaitzak % 100ekoak edo hortik gorakoak badira, gutxieneko kontrol-kopurua betetzen da.

Gainera, kontrol-programa ofizial batean agintaritza eskudun batek baino gehiagok esku hartzen dutenean, adierazle bat ezartzen da, kontrol-programa aplikatzen den lurralde osoan minimoak modu homogeneoan betetzen ote diren aztertzeko.

- **IG3: Homogeneotasuna kontrol ofizialen gutxieneko kopurua betetzean:** Kontrolak egiten dituen agintaritza eskudun bakoitzaren **IG2** emaitzak % 100 edo handiagoa izan beharko du.

IG2 adierazlea % 100ekoa edo hortik gorakoa bada agintaritza eskudun guztietan, horiek guztiak helduko dira egin beharreko gutxieneko kontrol-mailara, eta, beraz, homogeneotasuna egongo da gutxieneko kontrol-maila betetzean. Aldiz, agintaritza eskudunen bat ez bada % 100era iritsi **IG2** adierazlean, ez da homogeneotasunik egongo eta hori konpontzeko neurriak ezarri beharko dira.

3.2.2.- Kontrolen emaitzei buruzko adierazleak

Era berean, kontrolen bilakaera ezagutzeko, honako adierazle hauek kalkulatu dira:

- **IG4: Ez-betetzeekin egindako kontrol guztien ehunekoa, egindako kontrol guztietatik:** Ez-betetzeak dituzten kontrolen kopurua* 100/Egindako kontrolen guztizko kopurua.
- **IG5 Egindako kontrol guztietatik zehapen-prozedurak hasi dituztenen ehunekoa:** Zehapen-espeditentea duten kontrolen kopurua* 100/Egindako kontrolen guztien kopurua.
- **IG6: Ez-betetzeekin egindako kontrol guztietatik zehapen-prozedurak hasi dituztenen ehunekoa:** Zehapen-espeditentea duten kontrolen kopurua* 100/Egindako kontrolen guztien kopurua.
- **IG7 Ez-betetzeak dituzten operadore guztien ehunekoa, kontrolatutako operadore guztietatik:** Ez-betetzeak dituzten operadore guztien kopurua/kontrolatutako operadore guztien kopurua

IG5 eta **IG6** adierazleak ez zaizkie aplikatuko Elikagaien Kalitatearen, Ekoizpen Ekologikoaren eta Kalitate Bereziaren kontrol ofizialeko programei, merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotuta badago.

4.- Ez-betetzeetan hartu beharreko neurriak

Kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko prozesuan ez-betetzeak hautematen direnean, besteak beste, honako neurri hauek hartu ahal izango dira:

- Helburu estrategikoak eta operatiboak aldatzea
- Planaren atalen baten edukia aldatzea
- Kontrol ofizialeko programak egokitzea
- Kontrol-programa berriak diseinatzea edo kontrol-kanpaina berriren bat egitea
- EKOP berri bat edo plan estrategiko bat diseinatzea
- Lege-proposamen berriak garatzea
- Planaren egitura organikoa edo eskumen-banaketa aldatzea eta/edo koordinazio-organoak sortzea
- Lan-prozedura berriak garatzea agintaritza eskudunekin koordinatuta



- Komunikazio-kanpainak, gidak egitea, etab.
- Prestakuntza-jardunaldiak, hitzaldiak eta abar antolatzea

5.- Erreferentziak

[Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 \(EB\) Erregelamendua](#), elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoa.

[Batzordearen 2021/C 78/01 Komunikazioa](#), 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 109. artikulutik 111. artikulura ezarritako urte anitzeko kontrol-plan nazionaletarako baldintzak betetzeari buruzkoa.

[2021/C 71/01 Komunikazioa](#), Batzordearen 2019/723 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren eranskinean agertzen den formulario normalizatuaren eredia betetzeko moduari buruzko orientazioari buruzkoa.

[Helburu eta adierazleen garapena](#), MANCP Network, 2015eko apirila.

[Eraginkortasuna egiaztatzea](#), MANCP Network, 2016ko urria.

MAPAren kontrol ofizialaren sistemaren eraginkortasuna egiaztatzeko prozedura, 2026-2030 PNCOCA